

HEZKUNTZA-ESPARRUTIK LAN- MUNDURAKO TRANTSIZIO-BEKAK

ENPRESEI ZUZENDUTAKO GIDA

EHUko Praktiken Zerbitzua
2024-02-01

1. PRAKTIKAK KUDEATZEKO APLIKAZIORA SARTZEA.....	3
1.1 GAURen kudeaketarako sarbide zuzena (esteka)	3
1.2 Enpresa erregistratuta EZ badago.....	3
1.3 Praktika eskaini nahi den ikastegira sartzeko eskaera (enpresek alta emanda egon behar dute).....	4
2 PRAKTIKALDIAK.....	5
3 BEKA-KOPURUA LANGILE-KOPURUAREN ARABERA.....	5
4 IKASTEGIKO PRAKTIKETAKO ARDURADUNAREKIN KOMUNIKATZEA	6
5 GAUR-EKO SARBIDEA PRAKTIKEN ESKAINTZA ERREGISTRATZEKO.....	6
6 HITZARMENA LORTZEA ETA SINATZEA.....	9

Hezkuntza-esparrutik lan-mundurako trantsizio-beken esparruan, gida honetan azaldu nahi dugu nola sar daitezkeen enpresak sisteman, hiru hilabetez jarraian praktikak burutzeko eskaintzak egiteko.

1. PRAKTIKAK KUDEATZEKO APLIKAZIORA SARTZEA

Unibertsitateko kudeaketa-sisteman enpresa gisa jarduteko, webgunearen bidez GAUREn erregistratu beharra dago.

1.1 GAUREn kudeaketarako sarbide zuzena (esteka)

Listado de centros

Campus	Centro	Contacto	Gestiona Practicum	Practicum desde web	Praktiges desde web	Ofertas de empleo desde web	
Alava	Aula de la Experiencia de Alava		No	No	No	No	N
Alava	Escuela Universitaria de Estudios Empresariales de Vitoria-Gasteiz		No	No	Si	Si	S
Alava	Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz		No	No	No	No	S
Alava	Escuela Universitaria de Magisterio de Vitoria-Gasteiz		Si	Si	No	No	S
Alava	Escuela Universitaria de Trabajo Social de Vitoria-Gasteiz		Si	No	No	No	S
Alava	Facultad de Ciencias de la Actividad Física y del Deporte		Si	No	No	No	S
Alava	Facultad de Farmacia		Si	No	No	No	S
Alava	Facultad de Letras		No	No	Si	Si	S
Alava	Unidad Delegada de la F. de CC. Económicas y Empresariales en Vi...		No	No	Si	No	N
Alava	Unidad Docente de la F. de Medicina y Odontología en Vitoria-Gasteiz		No	No	No	No	N
Bizkaia	Aula de la Experiencia de Bizkaia		No	No	No	No	N
Bizkaia	Escuela Técnica Superior de Ingeniería de Bilbao		No	No	No	Si	N
Bizkaia	Escuela Técnica Superior de Náutica y Máquinas Navales		Si	No	No	No	N
Bizkaia	Escuela Universitaria de Enfermería de Leioa		Si	No	No	No	N
Bizkaia	Escuela Universitaria de Estudios Empresariales de Bilbao		Si	No	Si	Si	N
Bizkaia	Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Bilbao		No	No	No	No	N
Bizkaia	Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica de Minas y de Obras Pú...		No	No	No	Si	N
Bizkaia	Escuela Universitaria de Magisterio de Bilbao		Si	Si	No	No	S
Bizkaia	Escuela Universitaria de Relaciones Laborales	lh.praktikak@ehu.es	No	No	Si	No	S
Bizkaia	Facultad de Bellas Artes		No	No	Si	Si	S
Bizkaia	Facultad de Ciencia y Tecnología	saecyt@ehu.es	Si	No	Si	No	S
Bizkaia	Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales	gestor.practicas.fcee@e...	No	No	Si	No	N


1.2 Enpresa erregistratuta EZ badago

Enpresa berri gisa erregistratzeko, egin klik «Erregistratu enpresa berria» botoian. Hurrengo pantaila irekiko da, eta horretan enpresaren IFZ idatzi behar da, aurrera egiteko.


Registro de nueva empresa

Introduzca el NIF de la empresa y pulse Continuar

* NIF:

IFZ horrekin erregistroren bat egin bada aurretik —GAUREko moduluetan eskaintzak egin direlako—, dauden erregistroak azalduko dira beste pantaila batean. Erregistro bat baino gehiago badago, enpresaren sukurtsaleko edo sekzioko harremanetarako pertsona eta helbide elektronikoa aukeratu beharko dira, eta erregistro horretan sartu, IFZren ondoan dauden  gezien bidez.

Lehenago ez bada kudeatu EHU praktika-eskaintzarik, ez da egongo erregistrorik, eta enpresaren datuak sartu beharko dira alta emateko. Ondoren, datuak gorde egin beharko dira.



Zerbitzuak enpresei

Enpresa berriari alta emateko pantaila

* IFZ: B

* Sozietatearen izena:

* Izaera:

* Izena:

* Sektorea:

Tamaina:

Herrialdea: Espainia

* Bide mota:

* Helbidea:

* Zenbakia:

* Posta-kodea:

* Harremanetarako pertsona:

Kargua:

* Harremanetarako telefonoa:

* Harremanetarako helbide elektronikoa:

URLa:

[Gorde](#) [Atzera](#)

1.3 Praktika eskaini nahi den ikastegira sartzeko eskaera (enpresek alta emanda egon behar dute)

Erregistratu gabe zegoen enpresak altaren datuak bete eta gorde ondoren, edo erregistratuta zegoen enpresa dagokion erregistroan (harremanetarako pertsona egokia...) sartu ondoren, beste pantaila bat irekiko da, ikastegietan sartzeko eskaera egitekoa, alegia. Zerrendan, praktika zer ikastegitan eskaini nahi den aukeratu behar da, eta, ondoren, sarbide-zutabeko laukia () markatu. Azkenik, «Eskatu sarbidea» botoian egin behar da klik (laukia markatzean aktibatuko da).

Campusa	Ikastegia	Harremanetarako pertsona	Sarbidea
Bizkaia	320 Arte Ederren Fakultatea		<input type="checkbox"/>
Bizkaia	350 Bilboko Ingeniaritza Eskola		<input type="checkbox"/>
Bizkaia	364 Bilboko Ingeniaritza Eskola		<input type="checkbox"/>
Bizkaia	363 Bilboko Ingeniaritza Eskola		<input type="checkbox"/>
Bizkaia	345 Bilboko Ingeniaritza Eskola		<input type="checkbox"/>
Bizkaia	354 Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola		<input type="checkbox"/> >> GAURerako sarbidea
Bizkaia	321 Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	gestor.practicas.fcee@ehu.es	<input type="checkbox"/>
Bizkaia	351 Ekonomia eta Enpresa Fakultatea. Elcanoko Atala		<input type="checkbox"/>
Bizkaia	323 Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea		<input type="checkbox"/>
Bizkaia	356 Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	lh.praktikak@ehu.es	<input type="checkbox"/>
Bizkaia	352 Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea		<input type="checkbox"/>
Bizkaia	327 Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea		<input type="checkbox"/>
Bizkaia	310 Zientzia eta Teknologia Fakultatea	saecyt@ehu.es	<input type="checkbox"/>
Bizkaia	324 Zuzenbide Fakultatea. Bizkaiko Atala		<input type="checkbox"/>
Gipuzkoa	240 Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	daget.zuzendari-idaz@ehu.es	<input type="checkbox"/>
Gipuzkoa	251 Ekonomia eta Enpresa Fakultatea. Gipuzkoako Atala	bidelan@ehu.es	<input type="checkbox"/>
Gipuzkoa	263 Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	centrodecarreras.ep-ss@ehu.eus	<input type="checkbox"/>
Gipuzkoa	264 Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola. Eibarko Atala		<input type="checkbox"/>
Gipuzkoa	254 Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea		<input type="checkbox"/>
Gipuzkoa	230 Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea		<input type="checkbox"/>
Gipuzkoa	916 Hezkuntza-esparrutik lan-mundurako trantsizioa		<input checked="" type="checkbox"/>
Gipuzkoa	226 Informatika Fakultatea	vicedecano.inves-relexternas.fi-s...	<input type="checkbox"/> >> GAURerako sarbidea

[Eskatu sarbidea](#) [Atzera](#) [Hasi](#)

Dagokion ikastegiak sarbidea baliozkotuko du, eta sistemak mezu elektronikoko batean bidaliko ditu erabiltzailearen datuak eta pasahitza, GAUREn sartu eta eskaintzak egin

ahal izateko (ikus 5. atala: [GAUR-EKO SARBIDEA PRAKTIKEN ESKAINTZA ERREGISTRATZEKO](#)).

2 PRAKTIKALDIAK

Eskaintza 2023-2024 ikasturtean grabatu ahal izango da, aukeratu dugun titulazioaren ikastegiak adierazten badu, honako aldi hauetarako:

- Apirila-maiatza-ekaina
- Maiatza-ekaina-uztaila
- Ekaina-uztaila-abuztua
- Uztaila-abuztua-iraila
- Urria-azaroa-abendua

Praktikaldi guztiak hilabetearen lehenengo eta azken lanegunetan hasi eta amaituko dira.

2023/24 ikasturteko **ekaina-uztaila-abuztua** eta 2024/25 ikasturteko **urria-azaroa-abendua** aldiari dagokionez, eskaintza grabatzeko, aldez aurretik galdetu beharko zaio ikastegiari; izan ere, nahitaezkoa da zein ikastegitan grabatu behar den jakitea (interesatzen zaigun titulazioko ikastegian/fakultatean/eskolan edo 916 ikastegian — Trantsizio Beken Bulegoa—), 4. ataleko jarraibideak bete ahal izateko.

3 BEKA-KOPURUA LANGILE-KOPURUAREN ARABERA

Taulan daude jasota eska daitekeen bekadunen gehieneko kopurua.

Enpresak duen langileen kopurua	Bekadunen gehieneko kopurua, Fakultate eta Eskola guztiak kontuan hartuta
1-3	1
4-7	2
8-15	3
16-20	4
21-30	5
31-40	6
41-60	7
61-80	8
81-100	9
100 baino gehiago	10 gehienez

GARRANTZITSUA:

Hainbat eskaintza graba daitezke (langile-kopuruaren taularen arabera dagozkionak, gehienez), betiere kontuan hartuta eskaintza berarekin ikastegi bat soilik aukera daitekeela eta ez dela eskaintza beraren bikoizketarik onartzen ikastegi desberdinetan, ez titulazio berean ez beste batean.

4 IKASTEGIKO PRAKTIKETAKO ARDURADUNAREKIN KOMUNIKATZEA

Alta-erregistroa egin ondoren, eta/edo ikastegiari sarbidea eskatu ondoren, enpresak harremanetan jarri behar du interesatzen zaion ikasle-profilari dagokion titulazioa eskaintzen duen ikastegiko/fakultateko/eskolako praktiken arduradunarekin. Honako webgune honetan aurkituko du: <https://www.ehu.eus/eu/web/enplegua/arduradunak>. Mezu elektronikoa bidali beharko dio TRANTSIZIO-BEKETAN parte hartzeko asmoa duela adierazteko. Mezu horretan honako informazio hau ematea komeni da:


- Eskatzen den ikaslearen edo tituludunaren profila.
- Zer lan egingo dituen.
- Praktikak zer lekutan egingo dituen.
- Orduategiak.

Eskaintza grabatu aurretik, enpresako instruktoarearen datuak eduki behar dira: izen-abizenak, NAN zenbakia, jaiotze-data, helbide elektronikoa eta telefonoa.

5 GAUR-EKO SARBIDEA PRAKTIKEN ESKAINTZA ERREGISTRATZEKO

Enpresa balioztatu eta GAUREn sartzeko gakoak eskuratu ondoren, sisteman sartuko gara: <http://gestion.ehu.es/gaur>

Egin klik «Irakasleak, AZP eta bestelako erabiltzeak» aukeran.




Jarraian, hautatu «Unibertsitateko gestio akademiko gaurkotua».



Sartu erabiltzailea (IFZ) eta pasahitza (enpresaren harremanetarako posta elektronikoa jasotakoa) «GAUR erabiltzaile ez-korporatiboa» eremuan.



Sartu ondoren, egin klik «Borondatezko praktikak» aukeran.



Ikastegia hautatzeko aukera ematen duen pantaila azalduko da —irekita edo itxita dauden ikasturteetan enpresari sarbidea baliozkotu dioten ikastegien artean aukeratzeko—, eta «Ikastegia» izeneko beste eremu bat ere, ikastegi guztiak biltzen dituena. Azken horretara sartu nahi izanez gero, eskaera egin beharko da.

Ikastegiaren eta ikasturtearen hautapena

Hautatu zein ikastegirekin lan egin nahi duzun eta zein ikasturtetan

Hautatu ikastegia 125 Farmazia Fakultatea

Ikasturtea:	Egoera
>> 2020/21	Irekita
>> 2019/20	Irekita

Ikastegia	Sarbidea
215 Kimika Fakultatea	Balidatzeko zain
356 Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	Eskatu sarbidea
130 Letren Fakultatea	Balidatua
352 Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	Eskatu sarbidea
327 Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	Eskatu sarbidea

Baliozkotzeko zain geratuko da.

Ikastegiak sarbidea baliozkotu ondoren, «Aukeratu ikastegia» menu zabalgarria agertuko da, ikastegia aukeratzeko.

Ikastegiaren eta ikasturtearen hautapena


Hautatu zein ikastegirekin lan egin nahi duzun eta zein ikasturtetan

Hautatu ikastegia 125 Farmazia Fakultatea

Ikasturtea:	Egoera
>> 2020/21	Irekita
>> 2019/20	Irekita

Ikastegia	Sarbidea
125 Farmazia Fakultatea	Eskatu sarbidea
130 Letren Fakultatea	Balidatua
215 Kimika Fakultatea	Eskatu sarbidea
320 Arte Ederren Fakultatea	Balidatua
323 Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Eskatu sarbidea
916 Hezkuntza-esparrutik lan-mundurako trantsizioa	Eskatu sarbidea

Hautaketa egitean irekita dauden ikasturteak azalduko dira.

Sartu aukeratutako ikastegian eta ikasturtean,  gezien bidez eta grabatu eskaintza «Berria» botoia erabiliz, «Praktikak» eremuan sartu eta «Praktiken eskaintza» aukeraren bidez.

Titulua	Egoera	Hasiera-data	Amaiera-data	Luzapena	Hitzartua	Izena emandako ikasleen kopurua	ikasle guztiak
Ez dago daturik							

Berria


Sartu eskaintzen den praktikaren datuak «**Trantsizio-beka**» markatuta. Eskaintzan automatikoki zehaztuta daude deialdiko datuen eremuak, baina grabaketa 916 ikastegian (Trantsizio Beken Bulegoan) egiten bada, **praktikaren izenburua** jarri beharko da «Datu orokorrak» erlaintzeko «Azalpen laburra» eremuan.

Deialdi honetan beharrezkoa izango da ikasleak bete beharreko ordutegi espezifikoak zehaztea.

Bukatzeko, Gorde.

Eskaintza ikastegian grabatu ondoren, «Baliozkotzeko zain» egoeran geratuko da. Eskaintzaren balioztatzea eta esleipena ikastegiak burutuko du eta sistemaren mezu automatiko baten bidez jakinaraziko dira.

6 HITZARMENA LORTZEA ETA SINATZEA

Ezkerreko menuko «Praktika esleituak» aukeraren bidez esleipenaren inguruko mezua jaso ondoren, hitzarmena sortzeko aukera egongo da,  ikurraren bidez.

Borondatezko praktikak		Praktika esleituaren zerrenda						
Ikasturteak - ikastegiak		Formularioa ezkutuan, egin klik ikusteko						
Ikastegiko datuak		Ikusi Berezi						
Ikastegiko araudia								
Enpresa								
Praktikak								
Praktiken eskaintza								
Hautatu ikasleak								
Praktika esleituak								
Begiraleak								
Albisteak								
Praktiken eskaintzaren kopia								
>>	Praktikaren izenburua	Unitatea / Atala	Ikaslea	Instrukt	Hasiera-data - Amaiera-data	Begira		
>>	Formación y con...		MOLINA...	Mendib...	2018/09/01 2018/09/30	>>		
>>	Formación y con...		MINER H...	Mendib...	2018/09/01 2018/09/30	>>		
>>	Matlabetik Pyth...		RODRIG...	Gurrutx...	2019/03/11 2019/08/12	>>		

Enpresak baliabide elektronikoen bidez sinatuko du dokumentua, eta ikasleari bidaliko dio ondoren, praktikaldiaren lehen eguna baino lehen. Ikasleak sinatu eta praktika-zerbitzuaren edo zentroaren helbidera bidaliko du. Zerbitzuan, unibertsitatearen sinadurarekin osatuko dute izapidea, eta alde guztiei helaraziko diete.

Zalantzak argitzeko, praktika-eskaintza egiteko aukeratu duzun titulazioko praktiken arduradunarekin jar zaitezke harremanetan <https://www.ehu.eus/eu/web/enplegua/arduradunak> helbidean edo UPV/EHUko Praktiken Zerbitzuarekin: borondatezko.praktikak@ehu.eus.